

## ALTAMIRA BEACH

---



**A**ltamira Beach, toki ederra, emakumeak eguzkia hartzera joaten direnak, esan didatenez, gainera, gehienak Errenteriakoak. Gizon gutxi ikusten da, ez dakit zergatik, ordea, agian, gizarte honetan gauza guztiak banatu edo bereizi egiten direlako; batzuk gizonen gauzak dira edo hala ikasi dugu behintzat. Adibidez, elkarteetara orain arte gizonetzkoak bakarrik joan izan dira. Ba, horregatik, eguzkia hartzea emakumeen gauza izan delako edo izan daiteke ere norbaitek "Hau hona bista alaitzera dator" pentsa dezakeelako, gizon gutxi joaten da.

Gizarte honetan zoritxarrez, besteek esango dutenari begira bizi gara oraindik.

Ba, eguzkia neurritz hartzea gauza ona da denontzat, eta zer esanik ez, Psoriasis edo horrelakoren bat dutenentzat, eguzkia behar dutenentzat.

Laister herrian polikiroldegia edukiko dugu, zein ongi eguzkia hartzeko tokia eta beroa kentzeko pizina dexente bat edukiko balu.

*Jose Luis Egia*